eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

**ERABAKIA, 2017ko AZAROAREN 3koa, GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDEARENA, THINK BIG 2017 ENPRESA IDEIEN LEHIAKETA (Gipuzkoako edizioan) DEITZEKO, UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ENTREPRENARI PROGRAMAREN BARRUAN**

## 1. LEHIAKETAREN XEDEA

"Think Big 2017" enpresa ideien lehiaketak UPV/EHUko unibertsitarioen artean ekimenerako kultura hedatzeko ekintzen markoaren barruan du kokagunea eta, zehazkiago, Gipuzkoako campuseko ENTREPRENARI programaren barruan.

Deialdiak jarrera ekintzailea piztu nahi du. Oro har, ikasle, tituludun eta ekintzaileek zerbitzuak eta produktu bideragarriak komertzialki garatzeko, beraien jakintzak eta lanbide esperientzia aplikatzen adoretu nahi du.

Beste alde batetik, lehiaketak edozein negozio ekimen edota negozio ideia garatzeko lankidetza eman nahi du eta ekintzaileen beharrak hobeto betetzeko komunikazio tresna bat sortu nahi du.

## 2. PARTE HARTZAILEAK

Lehiaketa honetan parte hartu ahal izango dute negozio ideiarik izan eta aritzeko gaitasun betea dute pertsonek edo pertsona taldeek:

- Gipuzkoako campuseko edozein fakultate edo eskoletan matrikulatutako edo, Gipuzkoan bizi eta UPV/EHUren beste campusetan matrikulatutako edozein ikasle, banaka edo taldeka, gehienez lau ikaslek osatuta, bai eta masterretan matrikulatutako ikasleak ere.

- Halaber, ikasketak 2015/16 eta 2016/17ikasturteetan Gipuzkoako campuseko titulazioetan ikasketan amaitu edo Gipuzkoan bizi eta UPV/EHUren beste campusetan

**RESOLUCIÓN DE 3 DE NOVIEMBRE DE 2017 DEL VICERRECTOR DEL CAMPUS DE GIPUZKOA POR LA QUE SE CONVOCA EL CONCURSO DE IDEAS EMPRESARIALES THINK BIG 2017 (Edición Gipuzkoa) DENTRO DEL PROGRAMA ENTREPRENARI DEL CAMPUS DE GIPUZKOA DE LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA**

## 1. OBJETO DEL CONCURSO

El concurso de Ideas Empresariales "Think Big 2017" se engloba dentro del marco de las acciones de Difusión de la Cultura Emprendedora entre los/las Universitarias de la UPV/EHU y, concretamente, dentro del programa ENTREPRENARI del Campus de Gipuzkoa.

El concurso pretende fomentar el espíritu emprendedor motivando a los y las estudiantes para que apliquen sus conocimientos y experiencias profesionales, con objeto de desarrollar servicios y productos viables comercialmente.

Por otra parte, el concurso pretende establecer un canal de comunicación con el/la emprendedor/a, para proporcionar colaboración en su iniciativa o idea de negocio.

## 2. PARTICIPANTES

Podrán participar en el presente concurso las siguientes personas o grupos de personas que cuenten con una idea de negocio y plena capacidad de obrar:

- Estudiantes, individualmente o en grupo hasta un máximo de cuatro, que en la actualidad se encuentren matriculados/as en cualquiera de las Facultades o Escuelas del Campus de Gipuzkoa o que sean residentes en Gipuzkoa y estén matriculados en otros Campus de la UPV/EHU, incluyendo al alumnado matriculado en los Másters.

- Asimismo, podrán participar aquellos estudiantes egresados que hayan finalizado sus estudios en los cursos 2015/16 y 2016/17 en titulaciones del Campus de Gipuzkoa o que sean

adierazitako akademi ikasturteetan graduatutako ikasleak.

residentes en Gipuzkoa y se hayan graduado por la UPV/EHU en los citados cursos académicos.

- Hauekin batera, proiektu horiek egin, sustatu zein lagundu dituzten irakasleak ere aurkeztuko ahal dira, zuzenean nola informazioaren eta lehiaketaren jarraipenaren bidez.

- Junto a ellos podrán presentarse aquellos/as profesores/as que sean artífices o impulsores de dichos proyectos o colaboren en los mismos tanto directamente como mediante la información y seguimiento del Concurso.

- Taldekako proiektuetan, kanpoko unibertsitateetako ikasleek ere hartu ahal dute parte eta koordinatzaile bat izango dute, UPV/EHUko ikasle izango dena.

- En los proyectos colectivos podrán participar estudiantes de otras universidades y tendrán un coordinador que deberá ser estudiante de la UPV/EHU.

Ezin dute parte hartu 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera eratutako enpresek.

No pueden participar empresas constituidas con anterioridad al 1 de enero de 2017.

Talde edota pertsona bakar bakoitzak nahi duen beste negozio ideia aurkeztu ahal du.

Cada grupo o persona individual podrá presentar cuantas ideas de negocio desee.

Saria eskuratzen lehiatzeko, ez da nahitaezkoa ideia enpresa bihurtzea.

Para optar al premio no es imprescindible convertir la idea en empresa.

Lehiakideek bere egin eta onartzen dituzte oinarriok, beren aldetik, zinpeko aitorpen batean jasoko dutelarik.

Los concursantes consienten y aceptan las presentes bases, aceptación que será, asimismo, recogida en una declaración jurada.

Hauexek izango dira lehiaketatik kanporatzeko arrazoiak:

- Dokumentazioa epez kanpo aurkeztea.
- Oinarriotako edozein urratzea.
- Datu faltsurik adieraztea.
- Epaimahaiaren erabakia baldintzatzen ahalegintzea, edozein bide delarik.

Serán motivo de exclusión del presente concurso, los siguientes motivos:

- Entrega de documentación fuera de plazo
- Incumplimiento de alguna de las bases
- Falsedad de datos
- Intentar influir en la decisión del Jurado por cualquier medio

## 3. NEGOZIO IDEIAREN AURKEZPENA

Negozio ideiak espainiar unibertsitateetako ikasketa planetan edukitako jakintza arloetako edozeinetan garatutako ekimenezko proiektuak izango dira, zehazkiago: Artea eta Giza Zientziak, Zientziak, Osasun Zientziak, , Gizarte eta Lege Zientziak eta Ingeniaritza eta Arkitektura.

Proiektuek jatorrizko behar dute izan eta aurkezten duten pertsonek egina.
Negozio ideiak **2017ko abenduaren 4 ko 16:30ak** arte aurkeztuko ahal dira.

Eskaerak Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako campusetako erregistro orokorretan aurkez daitezke, edo, bestela, urriaren 1eko 39/2015

## 3. PRESENTACIÓN DE LA IDEA DE NEGOCIO

Las ideas de negocio consistirán en la elaboración de una iniciativa que desarrolle proyectos emprendedores en cualquiera de las ramas de conocimiento contenidas en los planes de estudios de las Universidades españolas, a saber: Artes y Humanidades, Ciencias, Ciencias de la Salud, Ciencias Sociales y Jurídicas e Ingeniería y Arquitectura.

Deberán ser originales y haber sido realizadas por el autor o los autores de los mismos.
Las ideas de negocio tendrán que presentarse hasta el **4 de diciembre de 2017 a las 16:30 horas**.

Las propuestas podrán presentarse en cualquiera de los Registros Generales de los Campus de Alava, Bizkaia y de Gipuzkoa de la UPV/EHU, o en su caso,

Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak zehaztutakoa betez.

conforme a lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

## 4. DOKUMENTAZIOA ETA BESTELAKO KONTSIDEROAK

Proposamenak posta azal itxian aurkeztuko dira, kanpoko aldean ezer ere idatzi barik, salbu eta "*Think Big lehiaketa – Gipuzkoako campusa*", eta honako dokumentu hauek izango ditu barruan:

a) Behar bezala betetako eskaria, honi atxikitako **I. eranskinarekin** bat etorrita (proiektuaren izena, lehiakide edo taldearen datuak (nolanahi ere, izena, kide bakoitzaren NAN edo pasaportea, telefonoa, posta elektronikorako helbidea, lehiaketan honen inguruko komunikazioetarako baliatuko dena eta, proiektuan irakasleren batek parte hartuz gero, bere izen-deiturak ere sartuko dira).

b) Oinarriak onartzeko zinpeko aitorpena.

c) Proiektua "justifikatzeko memoria". Aurkeztu beharreko dokumentazioaren luzera ez da, inola ere, 10 foliotatik gora joango. Aurkezteko formatua: kopia bat paperean eta beste kopia bat CD formatuan.

Laburpen exekutiboa gehituko da, gehien dela, bi orritako luzeraz, proiektuaren balio nagusiak laburbildu eta azpimarratuz.

Honako atal hauek jaso beharko dira memoria eta laburpen exekutiboan:

1.- Proiektuaren izena (egileak identifikatu gabe).
2.- Merkaturatu nahi den produktuak edo zerbitzuak konpontzen dituen problemak.
3.- Bezeroen edo produktu edo zerbitzuak erantzuten duen premia.
4.- Produktua edo zerbitzuak dituen ezaugarriak, berritzaile izaera ematen diotenak eta beste produktu edo zerbitzuetatik bereizten dituenak.

## 5. ESKAERAK BALIOESTEKO IRIZPIDEAK

## 4. DOCUMENTACIÓN Y OTRAS CONSIDERACIONES

Cada propuesta será presentada en un sobre cerrado sin escritura alguna en su exterior, salvo la identificativa del concurso, "*Concurso Think Big – Campus de Gipuzkoa*" y deberá contener la siguiente documentación:

a) Solicitud debidamente cumplimentada conforme al **Anexo I** que se adjunta (nombre de proyecto, datos del/la concursante o grupo (en cualquier caso, nombre, DNI o pasaporte de cada miembro, teléfono, dirección de correo electrónico que será el medio de comunicación a efectos del presente concurso y en caso de proyectos en los que participe un/a profesor/a también se incluirá su nombre).

b) Declaración jurada de aceptación de las bases.

c) "Memoria justificativa" del proyecto. La extensión de la documentación a presentar no deberá exceder, en todo caso, de 10 folios. Formato de presentación: 1 copia en formato papel y 1 en formato CD.

Se adjuntará un resumen ejecutivo, con una extensión máxima de dos páginas, que resuma y resalte los principales valores del mismo.

Esta memoria y resumen ejecutivo deberá reflejar los siguientes puntos:

1.- Nombre del proyecto (sin identificación de sus autores)
2.- Problemas que soluciona el producto o servicio que se pretende comercializar
3.- Necesidad de los clientes o de que responde el producto o servicio
4.- Las características que hacen que el producto o servicio sea innovador y se diferencie con relación a otros productos o servicios.

## 5. CRITERIOS DE VALORACIÓN

Negozio ideiak balioztatzeko, aintzat hartuko dira:

a) Ideiaren originaltasuna eta berrikuntza maila (40 puntu),
b) Negozioaren potentziala, garapen maila eta bideragarritasuna (30 puntu),
c) Ekintzaileen inplikazio maila, enplegua sortzeko potentziala eta bere kalitatea, (20 puntu)
d) Proiektuan erabil daitezkeen baliabideen aprobetxamendua, jasangarritasuna eta gizarte erantzukizuna, (10 puntu)

Para la valoración de las ideas de negocio, se tendrá en consideración:

a) La originalidad y el grado de innovación de la idea, (40 puntos),
b) El potencial del negocio, su nivel de desarrollo y viabilidad (30 puntos)
c) Nivel de implicación de los emprendedores, potencial de creación de empleo y calidad del mismo. (20 puntos)
d) Aprovechamiento de los recursos disponibles, sostenibilidad y responsabilidad social del proyecto. (10 puntos)

## 6. ESKARIAK EBAZTEKO PROZEDURA

Lehiaketa hau Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen erabakiaz ebatziko da, honako klausula honetan xedaturiko epaimahaiak proposatuta. Erabaki hau webgunean jakinaraziko da eta hautagaiei jakinaraziko zaie, deialdi honekin lotutako komunikazioetarako eman duten posta elektronikoko helbidera bidalita.
Erabaki honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtso aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak zehaztutakoaren babesean.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertzeko errekurtsorik jarriz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri lehenengoaren berariazko ebazpenik edo presuntziozkorik hartu bitartean.

Epaimahaiak honako osakide hauek izango ditu:

- Gipuzkoako Campuseko Errektoreordeak izendatutako ordezkaria
- Bic Gipuzkoak Berrilan S.A.eko ordezkaria
- Gipuzkoako Campuseko Kanpo Harremanetarako Zuzendaria idazkari gisa jardungo dena, botoz eta ahotsaz.

Epaimahaiaren eginbeharrak eta esleipenak

1.- Lanak behin betiko onartzea.

## 6. PROCEDIMIENTO DE RESOLUCIÓN

Este concurso será resuelto por resolución del Vicerrector del Campus de Gipuzkoa, a propuesta del jurado dispuesto en la presente cláusula. Esta resolución se comunicará a las candidaturas a través de la dirección de correo electrónico que establezcan como medio de comunicación a efectos de la presenta convocatoria.

Contra dicha resolución cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes desde su publicación, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante lo anterior, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde la publicación. En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o presunta del primero.

El jurado estará compuesto como sigue:

- Un representante nombrado por el Vicerrector del Campus de Gipuzkoa.
- Un representante de Bic Gipuzkoa Berrilan, S.A.
- Director de Relaciones Externas del Campus de Gipuzkoa, que actuará en calidad de Secretario con voz y voto.

Deberes y atribuciones del jurado

1.- La admisión definitiva de los trabajos

2.- Epaimahaia, lehiakideek aurkeztutako dokumentazioa eta hauek egindako proposamenak aldez aurretik aztertuta, egin beharreko eztabaidak egin ostean, ebazpenerako proposamena egingo du, behar bezala arrazoituta.

2.- El Jurado, previo examen de la documentación presentada por los concursantes y de las propuestas de éstos, tras las deliberaciones oportunas, procederá al acuerdo pertinente debidamente motivado.

3.- Epaimahaiak, proiektuei emandako puntuazioan oinarrituta, hartuko ditu hartu beharreko erabakiak.

3.- El Jurado adoptará sus acuerdos en base a la puntuación otorgada a los Proyectos.

4.- Epaimahaiak ahalmena izango du sor litezkeen eta oinarriotan arautzen ez diren arazo guztiak interpretatzeko eta hartuko dituen erabakiak ustezko legezkotasuna izango dute eta oinarri hauetako edukiarekin bat etorriko dira.

4.- El Jurado está facultado para interpretar toda clase de cuestiones que se susciten y que no se encuentren reguladas en estas Bases, y los acuerdos que adopte, gozarán de la presunción de legalidad y de ser acordes con el contenido de estas Bases.

5.- Epaimahaiak, oinarri hauetako 3. puntuan proiektuak aurkezteko ezarritako epea amaitu eta, gehien delarik, ondoko 30 egunetan ebazpen-proposamena aurkeztuko dio Campuseko errektoreordeari.

5.- El Jurado elevará su propuesta de resolución al Vicerrector de Campus, en un plazo máximo de 30 días a partir de la finalización del plazo para la presentación recogido en el punto 3 de las bases.

Epaimahaia lanak aurkezteko epea amaitu eta ondoko 15 egun naturaletan osatu beharko da.

El jurado deberá constituirse dentro de los 15 días naturales a contar desde el final de plazo de admisión de los trabajos.

## 7. SARIAK

Hiru sari emango dira, honako hauek alegia:
- Lehenengo saria, 2.000 eurotakoa.
- Bigarren saria, 1.500 eurotakoa.
- Hirugarren saria, 500 eurotakoa.

Sarietako batzuk hutsik laga daitezke, aurkeztutako negozio ideiek ez badute, epaimahaiaren iritziz, gutxieneko kalitate eta originaltasun mailarik lortzen. Saririk eskuratu ahal izateko, 100 puntutatik, gutxien dela, 60 puntu lortu beharko dira.

Epaimahaiak sari horiek proiektu bat baino gehiagoren artean banatzeko aukera, horietako bakoitzean adierazitako kopurutik gora inola ere joan ezin daitekeelarik.

## 7. LOS PREMIOS

Se otorgarán tres premios, que consistirán en
- Un Primer Premio, dotado con 2.000 €
- Un Segundo Premio, dotado con 1.500 €
- Un Tercer Premio, dotado con 500 €

Algunos de los premios pueden declararse desiertos si las ideas de negocio no logran un determinado nivel de calidad y originalidad a juicio del jurado. A efectos de optar a un premio, será necesario haber obtenido una puntuación mínima de 60 puntos sobre 100.

El jurado se reserva la posibilidad de repartir dichos premios entre más de 1 proyecto no pudiendo superarse el importe total de cada uno de ellos.

## 8. PARTEHARTZAILEEN BETEBEHARRAK

- Lehiaketaren oinarriak onartzea.
- Negozio ideia aurkeztea, adierazitako moduan.
- Datuen zehaztasunak bermatzea.

## 8. OBLIGACIÓNES DE LOS PARTICIPANTES

- Aceptar las bases del concurso
- Entregar, en los términos indicados, la idea de negocio
- Garantizar la exactitud de los datos

## 9. UPV/EHUren BETEBEHARRAK

- UPV/EHUk konpromisoa hartzen du bere ideia enpresa bihurtzeko erabakia hartuko duten parte hartzaile guztiei dohaineko prestakuntza emateko, enpresa plana garatzeko behar diren jakintzak berreskura ditzaten, bai eta negozio ideia abian jartzeko aholkularitza ere.

- Parte hartzaileek aurkeztutako proiektuen pribatutasuna mantentzea.

## 10. KONFIDENTZIALTASUN HITZARMENA

Aurkeztutako proiektuaren pribatutasunari eusteari dagokionez, lehiaketako epaimahaiak eta proiektuen berri jakingo duten pertsonek honako era honetara tratatu beharko dute lehiakideek emaniko informazioa:

- Proiektuaren titulua emango da argitara, lehiaketan parte hartzeko aurkeztutako dokumentuan aurkezten den bezala.
- Emandako informazioa proiektuen balioztatzeko baliatuko da, ez beste edozein gauzatarako.
- Lehiaketako epaimahaiak aurkeztutako informazioa jarri ahalko du proiektuen hautaketa prozesuan parte hartu behar duten pertsonen eskura. Pertsona hauek guztiak pribatutasun hitzarmen honek hartuta eta lotuta izango dira.
- Aurkeztutako informazioa ez zaie inola ere transmititu edo jakinaraziko erakunde publiko edo pribatutako kideei, egileen baimen eta adostasun espresik ez bada.
- Lehiakideek emaniko informaziotik abiatuta sortutako edozein dokumentu erabateko pribatutasun printzipioarekin bat etorrita mantenduko da.
- Lehiaketa garatu bitartean, bai eta gerora ere, proiektuaren tituluak eta egileek onartuko lituzketen datuak jakinaraziko dira, proiektuon behar besteko nabaritasuna lortzeko beharrezko direlarik.

## 11. ZIURTAPENA

Proiektu irabazleen egileek Gipuzkoako campuseko errektore ordeak emaniko ziurtagiri bat lortuko dute, irabazle izaera eta sariaren adjudikazioa ziurtatuko dituena.

## 9. OBLIGACIÓNES DE LA UPV/EHU

- La UPV/EHU a través de los medios disponibles se compromete a formar a todos los participantes que decidan convertir su idea en empresa, de forma gratuita para que puedan adquirir los conocimientos necesarios para desarrollar el plan de empresa, asesorarlos/as en la puesta en marcha de la idea de negocio.

- Mantener la privacidad de los proyectos presentados por los y las participantes.

## 10. ACUERDO DE CONFIDENCIALIDAD

Con relación al mantenimiento de la privacidad de los proyectos presentados, el jurado del concurso y demás personas que puedan tener acceso a los proyectos harán el siguiente tratamiento de la información que aportan los concursantes:

- Se hará público el título del proyecto, tal y como se presenta en el documento entregado para la participación en el concurso.
- El uso de la información facilitada estará limitado a la evaluación de los proyectos.
- El jurado del concurso podrá poner la información entregada a disposición de las personas involucradas en el proceso de selección de los proyectos. Todas estas personas estarán obligadas por los términos de este acuerdo de privacidad.
- En ningún caso, la información facilitada será transmitida o comunicada a personas o entidades públicas o privadas sin el consenso y la autorización de los autores.
- Cualquier documento generado a partir de la información facilitada por los y las concursantes será igualmente mantenido según el principio de privacidad absoluta.
- Durante el desarrollo del concurso, y también posteriormente, serán hechos públicos exclusivamente los títulos y los detalles del proyecto que los autores y autoras de los mismos acepten como necesarios para obtener notoriedad pública.

## 11. CERTIFICACIÓN

La persona o personas titulares de los proyectos ganadores obtendrán un certificado, expedido por el Vicerrector del Campus de Gipuzkoa, que avalará su condición de ganador o ganadora, además de la adjudicación del premio.

## 12. ZABALKUNDEA

Honako deialdi hau Gipuzkoako campuseko iragarkien taulan eta UPV/EHUren iragarki taula korporatiboan argitaratuko da.

## 13. ERREKURTSOA

Erabaki honen aurka aukerako berraztertzeko errekurtso aurkez daiteke hilabeteko epean, erabakia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita, guztia urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, zehaztutakoaren babesean.

Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke bi hilabeteren epean, erabaki hau argitaratzen denetik kontatzen hasita. Berraztertzeko errekurtsorik jarriz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri lehenengoaren berariazko ebazpenik edo presuntziozkorik hartu bitartean.

Erabaki hau argitaratu eta handik sei hilabetetara UPV/EHUren web gunean esleitzeko ezelako erabakirik argitaratu ez balitz, interesatuek ulertu beharko dute beren eskaria ezetsia izan dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1ko 39/2015 legearen xedaturikoari jarraiki.

## 12. DIFUSIÓN

La presente convocatoria será publicada en el Tablón de Anuncios del Campus de Gipuzkoa y el Tablón de Anuncios Corporativo de la UPV/EHU.

## 13. RECURSO

Contra esta resolución cabe interponer potestativamente recurso de reposición en el plazo de un mes desde su publicación, de acuerdo con lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante lo anterior, podrá interponerse recurso contencioso-administrativo, en el plazo de dos meses desde la publicación. En el caso de haber interpuesto recurso de reposición, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta la resolución expresa o presunta del primero.

Si transcurridos seis meses desde la publicación de este Resolución no se hubiera publicado en la web de la UPV/EHU resolución alguna de adjudicación, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud de conformidad con lo establecido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas

GIPUZKOAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA · VICERRECTORADO DEL CAMPUS DE GIPUZKOA · eman ta zabal zazu · Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

Agustín Erkizia Olaizola
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordea
Vicerrector del Campus de Gipuzkoa

## I ERANSKINA/ANEXO I
## *THINK BIG* SARIRAKO ESKAERA/SOLICITUD PREMIO THINK BIG

## GIPUZKOAKO CAMPUSEKO KANPOKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIARENGANA/AL DIRECTOR DE RELACIONES EXTERNAS DEL CAMPUS DE GIPUZKOA

**Aurkeztu den proiektuaren izenburua**/ Titulo del proyecto presentado

| |
|---|
| |

**Eskatzaileak/**Solicitante

| | | |
|---|---|---|
| **Izena**/Nombre: | **Abizenak**/Apellidos : | **NAN**/DNI: |
| **Tel.**/Tfno: | **Helbide elektronikoa/**E-mail: | |
| **UPV/EHUko zein taldetakoa den/**Colectivo de la UPV/EHU al que pertenece **(markatu X batez)**/(marcar con una X) | **Tituluduna, graduondoko ikasketen tituluduna edo ikaslea**/Titulado/a, postgraduado/a o alumno/a | |
| | **Irakaslea eta ikertzailea**/PDI | |
| | **Unibertsitatean eginiko ikerketa baten ondorioz garatutako teknologia erabiltzen duen sustatzailea**/Promotor que emplea tecnología desarrollada como resultado de una investigación en la Universidad | |

**Kontaktuan jartzeko helbidea/**Dirección de contacto

| | |
|---|---|
| **Kalea**/Calle –Zb./Nª: | **PK eta Herria**/CP y Población |

**Parte-hartzaile guztien datuak (horrela bada) /** Datos del resto de participantes (si corresponde)

| | | |
|---|---|---|
| **Izena**/Nombre: | **Abizenak**/Apellidos : | **NAN**/DNI: |
| **Tel.**/Tfno: | **Helbide elektronikoa/**E-mail: | |
| **UPV/EHUko zein taldetakoa den/**Colectivo de la UPV/EHU al que pertenece **(markatu X batez)**/(marcar con una X) | **Tituluduna, graduondoko ikasketen tituluduna edo ikaslea**/Titulado/a, postgraduado/a o alumno/a | |
| | **Irakaslea eta ikertzailea**/PDI | |
| | **Unibertsitatean eginiko ikerketa baten ondorioz garatutako teknologia erabiltzen duen sustatzailea**/Promotor que emplea tecnología desarrollada como resultado de una investigación en la Universidad | |
| **Izena**/Nombre: | **Abizenak**/Apellidos : | **NAN**/DNI: |
| **Tel.**/Tfno: | **Helbide elektronikoa/**E-mail: | |
| **UPV/EHUko zein taldetakoa den/**Colectivo de la UPV/EHU al que pertenece **(markatu X batez)**/(marcar con una X) | **Tituluduna, graduondoko ikasketen tituluduna edo ikaslea**/Titulado/a, postgraduado/a o alumno/a | |
| | **Irakaslea eta ikertzailea**/PDI | |
| | **Unibertsitatean eginiko ikerketa baten ondorioz garatutako teknologia erabiltzen duen sustatzailea**/Promotor que emplea tecnología desarrollada como resultado de una investigación en la Universidad | |
| **Izena**/Nombre: | **Abizenak**/Apellidos : | **NAN**/DNI: |

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco · Euskal Herriko Unibertsitatea

| **Tel.**/Tfno: | **Helbide elektronikoa/**E-mail: | |
|---|---|---|
| **UPV/EHUko zein taldetakoa den/**Colectivo de la UPV/EHU al que pertenece **(markatu X batez)**/(marcar con una X) | **Tituluduna, graduondoko ikasketen tituluduna edo ikaslea**/Titulado/a, postgraduado/a o alumno/a | |
| | **Irakaslea eta ikertzailea**/PDI | |
| | **Unibertsitatean eginiko ikerketa baten ondorioz garatutako teknologia erabiltzen duen sustatzailea**/Promotor que emplea tecnología desarrollada como resultado de una investigación en la Universidad | |

**Eskaerari lotu zaizkion agiriak**/Documentación que se adjunta (marcar con una X)

- [ ] **Eskaera**, beteta/**Solicitud** cumplimentada
- [ ] Proiektuaren "Justifikazio Txostena" (kopia 1 paperean eta bat CD formatuan)/Memoria justificativa del **proyecto** (1 copias en papel y una en formato CD)
- [ ] Proiektuaren balio nagusiak **laburtuta/ Resumen ejecutivo**
- [ ] **Beste batzuk** (zehaztu)/**Otros** (especificar))

**HAU ESKATZEN DUT:**

***GIPUZKOAKO CAMPUSEKO THINK BIG SARIRAKO*** edizioaren deialdian aurkeztu dudan proiektuarekin parte har dezadan onartzea.

Halaber, proiektu hau aurkeztearekin batera, UPV/EHUri **BAIMENA EMATEN DIOT**, behar izanez gero, eta betiere proiektuaren edukiaren konfidentzialtasuna bermatuz, proiektuaren izenburuaren eta gaiaren berri eta egile(ar)en berri emateko.

ETA **ADIERAZTEN DUT** eskaera honetan adierazitako datu guzti-guztiak egiazkoak direla.

Donostian, 2017ko ..................aren ........(e)(a)n

Eskatzailearen sinadura

**SOLICITO,**

Se admita la participación del proyecto presentado en la convocatoria del **PREMIO THINK BIG EDICIÓN GIPUZKOA.**

Asimismo, con la presentación de este proyecto **AUTORIZO** a la UPV/EHU, para que, en su caso, y manteniendo la confidencialidad del contenido del proyecto, difunda el título y materia sobre el que versa, así como la identidad del/los autor/es.

Y **DECLARO**, que todos y cada uno de los datos consignados en esta solicitud son ciertos.

En Donostia, a ....... de ........................ de 2017

Firma del solicitante

*Indarreko legerian datu pertsonalen babesari dagokionean ezarritakoa bete, jakin ezazu eskatu diren datu pertsonalak informatikoki tratatuko direla, lehiaketa gestionatzeko. Halaber, jakinarazten dizugu datuok erabili, aldatu, ezabatu eta aurka jotzeko eskubidea duzula fitxategiaren arduradunaren aurrea praktikak-gi@ehu.es helbide elektronikoaren edo ohiko postaren bidez, helbide honetara igorriz: Kanpo Harremanen Zuzendaria, Gipuzkoako Errektoreordetza, Julianategi. Arriola Pasalekua 2, 20.018 Donostia.*

*En cumplimiento de la legislación vigente de protección de datos personales, le informamos que los datos personales recabados serán objeto de tratamiento informatizado con la finalidad de gestionar el acceso y control del concurso. Igualmente, le informamos que podrá ejercitar los derechos de acceso, rectificación, cancelación y oposición ante el responsable del fichero por correo electrónico: **praktikak-gi@ehu.es**, o por correo convencional en la dirección siguiente: Director de Relaciones Externas del Campus de Gipuzkoa, Julianategi. Paseo de Arriola 2, 20.018 Donostia-San Sebastián.*